

Ihauteriak hor dira!

Aurten, Miarrizteko Maria Sainduan, ihauteriak ospatu ditugu. Horien kari, prestatu gira. Gelan, berrikusi ditugu ihauterien inguruak ohi-turak Euskal Herrian eta bereziki nor ziren pertsonaia garrantzitsuenak. Izan hartza, kotilungorriak, joaldunak edo Zanpantzar, denek leku berezia badute. Lan bat egin dugu ere ihauterien sinboloetaz. Maritzuli konpainiaren "Kaplaita eta harramantza" esposaketa deskubritu dugu Miarrizteko Herriko Etxean. Horren bidez, musika eta ar-rabotsaren lehenetsuna ulertu dugu ihauterietan.

Eskolan bertan ere, bazen egiteko-rik. Zanpantzarren auzia animatzeko, euskal dantzak ikasi eta errepikatu ditugu. Auziaren epaile eta abokatak hautatuak izan dira CM2koen mailan. Mozorroak jantzi ditugu eta ihauterien eguna etorri da. Auzia antzeztua izan da eta gela guz-ien Zanpantzarren kontrako akusa-zioak entzun ditugu. Bukatzeko, gure hobenduna erre dugu kanpoan. Eguna bikaina izan da!

Miarrizteko Maria Saindua eskola



Sagardi proiektua San Frantes Xabierrekoa kolegioan

Aurten, proiektu berri bati eman diogu abiapuntua gure kolegioan! Ikastetxeen inguruetako eremuak molde hoberean erabiltzeko, erakasle talde batekin erabakia izan da sagardi baten sortzea. Helburua da ikas-leak lurrali berriz konektatzea eta ikastea urteko sasoinekin lan egiten, denbora hartuz, zikloak errespetatuz. Patxi Aizager or-tzaiztar sagarno egilearen laguntzarekin, proiektua pentsatu

dugu eta landaketa gunea ere hautatu. Martxo hastapenean landatu ditugu lehen sagar-rondoak. Orotara 50 sagar-rondo, denak lekuko motak. Luzarat, sagardi horretako sagarrekin jusa egin nahi ginuke saltze-ko asmoarekin. Diru-laguntza kanpaina ere abiatu dugu gure proiektua gauzatzeko. Interesa-tuak bazirezte eta lagundu nahi bagaituzue ez duda ikastetxera deitzea! Milesker handi bat!

Sagardi proiektuko kideak



Bihotz-osotasunezko 41 urte Ursuiako ikasleentzat

Bere bizitzako 41 urte Ursuiako ikasleen heziketan eman ondoren, Michel Haristoy gure Hezkuntza Aholkulariari merezitako erretreta hartu du hilabete hastapenean. Horrek aro baten amaiera dakar gure ikastetxean, eta egunerokoa ikasleen eta irakasle edota hezi-

tzaileen arteko loturen garrantzia gogorarazten digu. Lau hamarkadaz, Michel Haristoy eskola-bizitzaren kudeatzaile hutsa baino askoz gehiago izan da. Belaunaldi askorentzat, gidaria, habea, eta batzuetan aitaren irudia ere izan da. Bere engaiamendua ez da diziplinara mugatu: bakoitza entzun, aholkatu eta bultzatu du, gazteentzat konfiantzazko giroa sortuz. Ikasle guziek, bai lehen-goek, bai oraingoek, eta baita irakasleek ere, bere zintotasuna, ongintzia eta entzuteko zentzua

azpimarratzen dituzte. Hezkuntza Aholkulariaren lana funtsezkoa da: administrazioaren, irakasleen eta ikasleen arteko lotura eraiki-tzen du, es-



kola bizitzaren funtzionamendu egokia bermatuz eta aldi berean, bakoitzaren loratzea bultzatuz. Michelen abiatzeak hutsunea uzten du, baina baita ondarea ere: hezkuntza komunitate batean sor daitekeen atxikimendu sakonaren eta bere lanari emana den pertsonak ukan dezakeen eragin iraunkorra. Beraz hori guziazatik, milesker bihotzetik Michel!

Hazparneko Ursuia kolegioa

Denak zinemara

Otsailaren 27an, ostiralarekin, zinemara joan gira Kerity filma ikusteko. Goizean, fitxa batzu landu ditugu andereñoekin filma pixka bat prestatzeko. Arratsaldean, eskolatik oinez ibili gira "l'Aiglon" zinema arte. Gelan sartu gira, gure lekua hartu dugu, belarriak prest, filma begiratzeko. Pelikularen bilduma tipia egiteko: 7 urteko mutiko tipi baten istorioa da. Egun batez, liburategira joaten da eta mezu magikoa ikusten du.

Bat-batean, ipuineko pertsonaia anitz heien liburuetatik ateratzen dira eta galdegiten diote mezu magikoa irakurtzea, bestenaz desagertuko dira, baina maleruski gure muti-koak ez daki irakurtzen... Filma biziki maitatu dugu, ez zen beldurgarria. Biziki polita zen. Espero dugu laster beste film bat ikusten ahalko dugula gure eskolarekin!

Kanboko Andra Mari eskolako ikasleak

